

## **Koronabirusaren hasierako hilabeteetan Ajuria foru egoitzan egindako lanaren eta bizipenen balioa nabarmenduko du kontakizunez eta irudiz osatutako erakusketa batek**

*Erakusketa Vivir con Voz Propia elkarteak koordinatu du eta egoitza zentroko langileen laguntzarekin egin da, eta ikusgai izango da uztailearen 9ra arte Gasteizko San Martin gizarte eta kultura zentroan*

**Gasteiz, 2021eko ekainaren 11.** San Martin gizarte eta kultura zentroan (Jesus Apellaniz z.g., Gasteiz) “Musu bat gordetzen dut, bera joan eta zu etortzen zarenerako” izeneko erakusketa izango da ikusgai, gaurtik aurrera. Irudiek eta kontakizunek osatzen dute, eta xede du honako hauen “balioa nabarmentzea”: Ajuria foru egoitzako langileek koronabirusaren hilabeterik gogorrenetan egindako lana, erabiltzaileen erresilientzia, familien babesa eta herritarren inplikazioa topaketa uneak errazteko.

COVID-19aren ondorioz bizi izandako osasun krisiak oso egoera zailak eragin zituen, bereziki adinekoen egoitza zentroetan. Egoera hartan, 2020ko lehen seihilekoan, Vivir Con Voz Propia elkarteak, zeinak lankidetzaz hitzarmen bat sinatuta baitauka Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egoitzetan boluntariora sustatzeko, komunitatearekin batera zaintza sare bat eratu zuen, ziurgabetasun, beldur eta bakardade sentimenduak arintzen saiatzeko eta lagun egiteko.

Erakusketan, egoera ahulean dauden, gaixotasuna aurreratuta duten eta bizitzaren amaieran edo bakarrik dauden Ajuria egoitzako pertsonen zaintza integralarekin konprometituta dauden eta Vivir con Voz Propia proiektuarekin bat egin duten boluntarioen bizipen partekatuak erakutsiko dira. Adibidez, zenbait ikastetxetako DBHko ikasleen inplikazioaren erakusgarri dira, besteak beste, ikasleek idatzi zituzten gutunak, musika taldeek eta musikako eta musikoterapiako ikasleek bidalitako bideo hautatuen sorta eta olerkarien olerkiak, zeinekin hormak bete baitzituzten.

Erakusketa osatzeko, egun haietan langileek mugikorrarekin egindako argazkiak ere jarriko dira. Familiekiko loturatzat balio izan zuten argazkiek ziurgabetasun une oso zail haietan; une zailak bai arlo pertsonalean bai ikuspegi profesionaletik: “Une haietan, profesional horien onena azaleratu zen eta elkartasun irakaspen bikaina eman zuten. Garai hartan egindako argazkietako batzuk baino ez dira, eta bai hiria eta bai mundua gelditu ziren hilabete haietan egoiliarrekiko eta familiekiko erakutsi zuten gertutasunaren ikur dira”.

Horixe adierazi du Emilio Sola Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak erakusketaren aurkezpenean. Han izan dira, orobat, Patxi del Campo, Vivir Con Voz Propia proiektuaren koordinatzailea; Olatz García, erakusketako boluntarioa; eta Paquita Niso, Ajuria egoitzako erabiltzailea.

Emilio Solak eskerrak eman dizkie erakusketa egitea ahalbidetu duten pertsona guztiei beren inplikazioagatik; izan ere, esan duenez, erakusketa da “iraganetik egindako bidaia, iragana orainaldira itzultzen diguna eta gaixotasun hori gabeko etorkizunerantz itxaropenez proiektatzen gaituena.

*Pandemiaren unerik txarrean sortu ziren irudi, hitz eta pertzepzio hunkigarri horiek pertsonak eman dezaketenen onenaren isla dira”, adierazi du.*

Argazkiak eta testuak jasotzen dituzten zenbait panelek osatzen dute erakusketa. Lehen bi panelak profesionalen ahaleginari eta dedikazioari buruzkoak dira, eta “Musu konfinatuak” da haien izenburua. Hurrengo panela egoiliarren eta haien senideen gogortasunaren eta karraren erakusgarri da, eta “Desiratutako musuak” dauka izenburua. Eta beste hiru panelek, zeinen izenburua “Musu partekatuak” baita, boluntarioen ekintzak eta keinuak erakusten dituzte, hala nola belaunaldien arteko gutun trukea eta bakardade sentimendu partekatuaren barruan sortutako bideoak eta olerkiak.

Erakusketa ikusgai izango da datozen asteetan, uztailaren 9ra arte, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.